

Atzo, abenduak 4 mahai negoziatzailea izan genuen.

Negoiazio hitzak berak esaten duen bezala, prozesu luzea da, dagoeneko bilera monografiko desberdinak egin ditugu. Momentu askotan ez aurrera, ez atzera geratu garen arren, badirudi negoziatzen jarraitzeko indarrak ditugula guztiok.

Ekarpenak aztertzea lan astuna eta neketsua izaten ari da denok ditugulako proposamenak, iritziak eta baita marra gorriak ere. Dena den, Stee-eilas sindikatuak ekarpenak egin genizkion Partzuergoak aurkeztutako azken dokumentuari, beti ere 13. artikulua hobeto bat lortze aldera eta gure ustez argigarriagoa eta zehatzagoa izango den testua sortu nahian.

Oraingoz **adostuta** dagoena:

* *Atxikipena aldatzeko irizpideak:* Borondatezko eskaerak, Ordezkoak (Lan metaketak, Lep artekoak) eta azkenik finakoak (plazen esleipen-ordena jarraituz).

* *Salbuespenak:*

Orain arte sinatutako akordioak eta indarrean daudenak (historikoak eta 55 urtetik gorakoena) Finkoak bere haurreskolan atxikipena galtzen dutenean haurreskolaren betirako itxieragatik. Zerrendetan barematuak ez dauden langileak. Balizko zerbitzu eginkizunetan dauden langileak.

Azken zehaztapenen zain, (oraindik gaia itxi gabe dago) honako puntuak geratu dira:

* Ordezkapen luzeak egiten dituzten langileak (liberazio sindikalak, amatasun bajak, haurdunaldi arriskuak,... eta abar) atxikipena aldatzeko irizpideetan txertatzeko leku aproposa bilatu. Hau da, lan metaketak mugitu aurretik edo mugitu eta gero.

* Enpresak atxikipena aldatzeko aurre abisuaren epea zehaztea. Partzuergoaren proposamena: 2 lan egun lehenago egitea da eta epea betetzen ez den kasuetan, langileak, enpresarekin adostuta 2 jai egun hartu ahalko lituzke ikasturtean zehar.

Stee-eilas sindikatuak hasieratik eskaera hauek egin ditu eta oraingoz behintzat ez dira kontuan hartu:

* Atxikimendua aldatu behar den kasuetan ordezkoa titularraren menpe egotea edozein kasu suertatuta ere.

* Finkoak mugitzeko guk proposatutako irizpideak erabiltzea, horrela 2012ko birratxikipenatarako salatutako zerrenda ez delako berrerabiltzen. (aintzinasuna dauden haurreskolan lep gaitutako denetik, leparen ordena eta honen emaitza).

Oraingoz ez dakigu zein forma izango duen balizko 13.artikulu berriak baina lanean ari gara eta horretan jarraituko dugu.

